

Professeur Jean HARITSCHELHAR (1923-2013) : une vie vouée à l'enseignement et à la défense et promotion de la langue basque.

Une maladie aussi brève qu'implacable a emporté en quelques jours Jean Haritschelhar, professeur émérite de l'Université Michel de Montaigne-Bordeaux 3, encore en pleine activité d'académicien basque et pleine possession de ses moyens il y a peu de temps. Petit-fils d'instituteur de l'enseignement public, né à Saint-Etienne-de-Baïgorry dont il sera maire pendant plusieurs années y créant le collège Pujo, il avait été admis à l'Ecole Normale de Saint-Cloud et après avoir obtenu l'agrégation d'espagnol avait occupé son premier poste d'enseignant au lycée d'Agen. L'intérêt porté à sa langue maternelle, le basque, l'a conduit très vite à entreprendre sa thèse de Doctorat ès Lettres sur le poète ou barde souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862) dont il a publié l'œuvre complète traduite et commentée dans un fort volume de plus de 700 pages (1970), sous la direction du Professeur René Lafon. Bien qu'il y eût eu déjà quelques enseignements sur la langue basque en particulier à Toulouse, c'est en 1948 que l'Université de Bordeaux a créé la première "chaire" intitulée de Langue basque en France au profit de René Lafon, lui-même philosophe de formation, avant de s'éprendre de passion pour la langue basque apprise dans sa version souletine durant ses vacances à Sainte-Engrâce. Sa thèse sur *Le système du verbe basque au XVIIe siècle* (première publication en 1944) reste toujours un ouvrage fondamental et indispensable sur la question.

Entré à l'Université de Bordeaux comme assistant de René Lafon, Jean Haritschelhar a occupé après lui la chaire de basque, et en a assuré les enseignements (cours d'initiation et options de basque) avec l'aide d'un lecteur de basque dont il avait obtenu la création, tout en assurant aussi un enseignement en espagnol. Les nombreux "thésards" en langue et littérature basques, tous en France jusqu'à la création de nouveaux postes d'enseignants-chercheurs après 1982, beaucoup en Espagne, ont pu apprécier la direction à la fois exigeante et bienveillante du Professeur Jean Haritschelhar. Avant de prendre en 1986 sa retraite de professeur émérite des universités de classe exceptionnelle avec la distinction d'officier des Palmes académiques, Jean Haritschelhar avait accompli deux actes décisifs pour donner au développement des études universitaires en France toute l'envergure que méritait la langue la plus ancienne d'Europe encore vivante, en France comme en Espagne, après avoir survécu d'une manière presque inexpliquée à des millénaires d'aléas historiques. Le premier fut la création à Bayonne du premier enseignement universitaire de basque sous la forme d'un Institut d'études basques sis à la Faculté de droit et sciences économiques, inauguré par Joseph Perez président de Bordeaux III. Il délivrait un Diplôme d'Université qui fut aussitôt exigé par le rectorat pour les enseignants de basque qui commençaient à se développer dans le secondaire. Cet acte initiateur permettrait plus tard, d'abord de créer la très originale structure administrative du Département Interuniversitaire d'Etudes Basques (DIEB) imposé par l'emplacement de l'Institut sur le domaine de l'Université de Pau, et dans ce cadre la délivrance sous double sceau des diplômes nationaux progressivement créés (DEUG 1989), suivis du Capes (1993). L'autre acte fondateur de Jean Haritschelhar est

d'avoir obtenu la création en 1983 d'une unité de recherche en domaine basque associée au CNRS (UMR 5478 devenu le Centre de recherches IKER), qui appela ensuite la création de la revue annuelle et d'abord pluridisciplinaire, prise en charge par les deux universités, *Lapurдум* dont le quatrième numéro (*Lapurдум* IV octobre 1999) fut précisément un très légitime "Hommage au professeur Jean Haritschelhar".

Hors cadre universitaire, Jean Haritschelhar, longtemps à la tête du Musée Basque de Bayonne et de son fameux "Bulletin", a mené jusqu'aux derniers mois de sa vie une immense activité de participation aux travaux, organisation, direction de 1989 à 2004, installation d'une antenne bayonnaise officiellement reconnue, à l'Académie de la langue basque (Euskaltzaindia).

Jean HARITSCHELHAR jaun erakaslea (1923-2013): bizi bat erakaskuntzari eta euskararen zaintze 'ta aitzinatzeari emana.

Eritasun labur bezain urrikalmendu gabeko batek egun gutiz ereman du Jean Haritschelhar, Michel de Montaigne-Bordele III-ko erakasle aiphamenekoa, duela guti oraino euskalzaingoko egintza betean eta bere ahalen jabetesun osoan. Erakaskuntza publikoko errient baten semabitxia, Baigorri jaioa, han urtez auzaphez izanen baita eta Pujo ikastetxea jarriko baitu, Saint-Cloud-eko Ecole Normale delakoan onharturik izana zen eta berantago espagnoleko agregazioneza ukani, lehenbiziko erakasle kargua hartua zuen Agen-go lizean. Bere amahizkuntzari, euskarari, bazemon oharpenak laster ereman du Leteretako Dotoragoaren hastera, René Lafon jaun erakaslearen buruzagitzapean, Pierre Topet-Etchahun (1786-1862) olerkari edo bertsulari xuberotarraz, haren lan osoa, azterturik eta erdal-itzulpenarekin, agertu baitu gero 700 orrialdez gehiagoko liburu gotor batean (1970). Euskarazko erakaskuntza zenbait izana baldin bazen jadanik bereziki Tolosan, 1948-an du Bordeleko Unibertsitateak jarri Frantzian lehenbiziko "kathedra" Euskararen tituluarekin René Lafon-i emaiteko, ikaskuntzaz filosofoa, Santa-Garazin zeramatzen lanartetan euskararendako jaidura bizi batez hartua izan baino lehen euskalki xuberotarrean. Haren thesisa *Le système du verbe basque au XVI^e siècle* (lehen agerraldia 1944-an) gai hortan lan baitezpadako eta beharrezkoa dago beti.

Bordeleko Unibertsitatean sarturik René Lafon-en laguntzale bezala, Jean Haritschelhar-ek hartu du haren ondotik euskarako katedra, eta erakaskuntzak bere gain hartu ditu (hastapeneko eta hautuko ikastaldi) haren izendatzea ukana zuen euskarako irakurle baten laguntzarekin, espagnoleko erakaskuntza batzu emaiten zituen batean. Euskal-hizkuntzako eta literaturako "thesigile" ainitzek, Frantzian orok 1982 ondoan erakasle-ikherle kargu berriak eginak izan baino lehen, ainitzek ere Spainian, estimatu ahal ukantute Jean Haritschelhar jaun erakaslearen buruzagitzza aldi berean behakor eta ongi-nahia. Unibertsitateko erakasle ohigabeko lerrora heldurik eta Palma akademiketako aitzindari ohorearekin erretreta hartu baino lehen 1986-an, bi egintza oinarritzale jarriak zituen Frantzian unibertsitateko erakaskuntzen hedamenari Europako hizkuntza zaharrenak, oraino Frantzian bezala Spainian bizi, ixtorioko hainbertze halabehar iraganik molde abantzu ezin

argituan, merezi zuen zabaldura guziaren emaiteko. Lehenhizikoa izan zen Baionan unibertsitateko euskal-erakaskuntzen hastapenaren jartzea Dretxo eta Jakintza ekonomikoetako Fakultatean ezarri zen "Institut d'Etudes Basques" delakoarekin, Joseph Perez Bordele III-ko buruzagiak ideki zuena. Euskal-ikaskuntzako diploma bat emaiten zuen, erretoregoak berehala galdegin zuena bigarren mailean hedatzen hasiak ziren euskarako erakaslendako. Hastapeneko egintza horren ondorioa izanen zen berantago "Département Interuniversitaire d'Etudes Basques" (DIEB) delakoaren egitura berezi-bereziaren moldatzea, Institut-a Pauko Unibertsitateko eremuan izaitaek ekhartzen zuen bezala, eta ingurune hortan, bi unibertsitatzen zigilu-pean, bat bertzearen ondotik egin ziren diploma nagusien emaitea (DEUG 1989), eta gero Capes-era prestatzea (1993). Jean Haritschelhar-en bigarren egintza oinarritzalea izan da 1983-an CNRS-arekin elgantu euskal-eremuko ikherketako batzoki baten ukaitea (UMR 5478, IKER izeneko batzokia bilakatu dena), horrek ekharri baitzuen gero bi unibertsitatek bere gain hartu zuten *Lapurдум* urtekari eta lehenbizian jakintza orotakoaren sortzea, laurgarrena (*Lapurдум IV* 1999-ko urrian) hain zuzen biziki bidezko "Jean Haritschelhar jaun erakasleari omenaldia" ("Hommage au Professeur Jean Haritschelhar") izan baitzen.

Unibertsitateko ingurunetik hara, Jean Haritschelhar-ek, luzaz Baionako Euskal-erakustokiaren eta "Bulletin" aiphatuaren buru, biziko azken ilabetetarano gaitzeko lan bat ereman du Euskaltzaindiko bilkuretan, moldakuntzan, 1989-tik 2004-rano buruzagitzan, Baionako batzorde ofizialki ezagutuaren jartzean.

Jean-Baptiste Orpustan, unibertsitatetako erakasle ohia (Michel de Montaigne-Bordele III).